

Arratsaldero, uztailaren 1etik 23ra

Jarraitu gurekin Tourra

naiz:irratia




29 JUN. 2023

**Xabier Izaga** 

Erredaktorea Gaur8 aldizkarian. Idazlea

IRUNBERRIKO ARROILA ETA COVITE: EGIA BERE GORDINEAN





'Arroilaren negarra'ren Gasteizko aurkezpenaren kartela. (NAIZ)

Joan den igandean bete ziren 33 urte «Irunberriko gertakarietatik». Astelehenean, Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Lakuako Gobernuak bertan behera utzi zuen ekitaldi ofiziala, «alderdiek erabil ez zezaten», eta Egiari Zor fundazioak egun hori zela-eta egin zuen ekitaldian Estatu krimenen egia osoa jakin beharra aldarrikatu zuen.

Egia osoa jakiteko ahalegin txalogarria da 'Irunberri 1990: Arroilaren negarra' liburua (Erein), Irunberriko Arroilan gertatutakoaren ikerketaren kronika, astelehenean Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegian Pako Aristi haren egileak eta Gure Bazterrak elkarteko kide Ander Lizarralde aurkeztu zutena. Liburuaren eta ikerketaren nondik norakoak berri eman zuen Ramon Solak apirilaren 21ean NAIZ eta GARAn argitaratutako artikulu gomendagarrian.

Jon Lizarralde, Susana Arregi eta German Rubenach ETako militanteak arroilan ekintza bat egiteko informazioa biltzen ari zirela, Guardia Zibilaren patruila batekin topo egin zuten, Jose Luis Hervas sarjentua hil eta ihes egin zuten. Guardia Zibilak zintzurteko bi sarrerak itxi eta bederatzi ordutsu geroago German Rubenach atera zuten handik, larri zaurituta, buruan tiro bat zuela. Hogei ordu geroago, Arregiren eta Lizarralderen gorpuak agertu ziren. Lehenak bi tiro zituen buruan, eta bigarrenak tiro bat buruan eta ibaiko ura biriketan.

Espainiako Barne Ministerioak esan zuen ETako militanteek beren buruaz beste egin zutela; hala ere, jende askok ez zuen sinetsi. Kezka horrek luze iraun zuen Oñatin, Arregiren herrian, eta beste leku askotan. Hori dela eta, Gure Bazterrak Kultur Elkarteak gertaera haren inguruko dokumentazioa bildu eta ikertzeari ekin zion. Lan ikaragarria zuten aurretik eta, haren zailtasunak ikusita, Pako Aristiri eskatu zioten laguntza. Lan taldearen lanaren emaitza, 'Arroilaren negarra'.

Ordu horietan gertatutakoaren ikerketa sakon, zehatz eta zorrotza da, egiara bide bat baino gehiagotatik hurbiltzen duen berreraiketa, ondorio argiak ateraz. Imajinatzekoa zen zer gertatu zen eta askok susmatzen zuten horretaraxe, bertsio ofizialak ezkutatu nahi zuen horretaraxe iristen da ikerketa, hiru iturri nagusi erabilita, hiru «froga bide», alegia: kasuaren sumarioa, hura lortu eta arakutzen hasita kontraesanak sumatzen hasi baitziren; egun hartan arroilan zegoen emakume holandar bat, baita han ziren zenbait ume gasteiztar ere; eta komandoaren laguntzaileek emandako azalpenak.

Rubenachek ez du oroitzen guardia zibilekiko tiroketaz geroztik zer gertatu zen, buruko zauriaren ondorioz amnesia peritraumatikoa baitu; han ziren guardia zibilek ez dute argirik eman, baina Espainiako Barne Ministerioaren bertsioa guztiz eraitsi du liburu horrek bildu duen ikerketak.

Bestetik, egia juridikoa delakoa ez dator bat bertsio ofizialarekin. German Rubenach suizidioan laguntzeagatik epaitu eta absolbitu egin zuten, ez baitzegoen horren froga bat ere -batek daki zer behar zuen Auzitegi Nazionalak ikerketa bat abiatzeko-. Arroilan ez zen suizidiorik egon. Eta beren buruaz

beste egin ez bazuten, nork hil zituen? Hori da bertsio ofiziala ezkutatzen saiatu zena.

Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunean aurkeztu zuten, eta izan zen aurkezpena baldintzatzeko eta are bertan behera uzteko ere ahaleginik, ordea. Aurreko ostegunean Covite elkarteak ekitaldiaren aurkako mezuak zabaltzen hasi zen Twitterren, liburuaren aurkezpenean Joseba Sarrionandiak parte hartu behar zuelako, eta Gasteizko Udalarik eskatu zioten liburu honen aurkezpena «espazio publiko batean egitea berriz azter» zezala.

Sarrionandiak ez joatea erabaki zuen azken momentuan, ekitaldiaren fokua bere gainean jarri ordez, liburuaren gainean jarri beharra zegoela uste izanda.

Biktimen elkarte horrek dioenez, ez litzateke onartu behar «espazio publikoak ETaren terrorismoa zurrizko eta legitimatzeko erabiltzea». Aristiren liburuak ez du ETA ez ezer zurrizko, ordea. Baina nabarmen uzten du 20 ordu haietan arroilan gertatutakoa ezkutatu eta zurrizko duen bertsio ofiziala, inpunitatearen berme eta «kontakizunaren» bazka dena. Aristik eta Gure Bazterrak elkarteak ez dute ezer ezkutatu, ezta biktimen mailaketarik egiten ere, egia bere osoan, bere gordinen azalarazten saiatzen baizik.

Ezinbesteko lana 'Arroilaren negarra', ezarri nahi duten kontakizuna, finean, bertsio ofizial bat baino ez da eta.

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD



PUBLICIDAD





Lo +

Esan pide expulsar de EITB al periodista Xabier Lapitz, amenazado por un ertzaina en la calle

Calaveras, metralletas, banderas españolas... la simbología reveladora en parches de ertzainas

Euskal Herria ya es un país independiente... en el último cómic de Superman

« Réflexion autour du modèle des fêtes de Bayonne »

Tour de France : une arrivée à Bayonne et tout un programme

Te puede interesar



EUSKAL HERRIA

El 81% de la población opina que se destinan pocos recursos a Osakidetza

Iker Bizkarguenaga



ECONOMÍA

Imaz, rozando el negacionismo, arremete contra las políticas climáticas

Beñat Zaldua



MUNDO

La lucha por un techo: Irlanda y su crisis habitacional

Ibai Azparren



DEPORTES

«Eguraldi onarekin, Tourrak Euskal Herriko paraje ikusgarriak are gehiago jarriko ditu mapan»

Ion Garate

Info

Euskal Herria

Economía

Mundo

Naiz+

Bilbotarra

Donostiarra

Gasteiztarra

Iruindarra

Deportes

Fútbol

Baloncesto

Balonmano

Pelota

Ciclismo

Remo

Motor

Herri Kirolak

Rugby

Opinión

Editoriales

Zugazart

Artículos

Cartas al director

Blogs de opinión

Cultura

Vídeos

Galerías

Audios

Esquelas

Tienda

El Tiempo

EN DIRECTO

Recibe nuestra newsletter

Te enviaremos noticias únicamente para que las conozcas. Sin spam.

Enviar

Este sitio está protegido por reCAPTCHA y se aplican la [Política de Privacidad](#) y los [Términos de Servicio](#) de Google.

Quiénes somos [Contacto](#) [Aviso legal](#) [Publicidad](#)

:IRRATIA :BIDAIARI GARA 7K GAUR8 MEDIABASK KAZETA 11 TB